Hitz antzuen azokan

Gema Lasarte

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1985 Gema Lasarte
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1985
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Ideiak eta esperantzak tolesten ari zatzaizkit;
ilusioak ximeltzen;
indarrak errausten... Ez dakit nondik datorren
haize bero eta sargoi hau!
Larrubizik jarri arte ez dut
hitz fresku bat jaurtitzeko indarrik izanen
eta ondikotz urrun sentitzen dut udaberria...

Sasihitzak sutzerakoan sasoi hutsa
sentitzen dut;
hitz hutsak suntsitzen direnean sasoitzen
zait bihotza;
hitz arrotzak deusezten dituzten armen garrak
izanen dira nire betiko hitz kuttun eta xarmanten
koilare bakarra eta laztana.

Hitza ta pitza...
haizeak dakarrena haizeak darama
batzuk usain ederra uzten digute,
    halere,
hain gutxi dira hitz horiek...

Hitza ta pitza
atsoak leiho batetik bestera
atzoko kontu zaharrak marmarka.

Hitza ta pitza
harategian, ororen haragi biguinak
disekatzen...

Hitza ta pitza mitinetan
lau urtetan ezin egin daitezkeen
gauzak zikoizten.

Ahantzitako hitz batzuren esanahia egokitzeko
hitz batzu nituzke gure baratzetatik egotziko, haatik,
hitz orori bere esanahia betetzeko garaia etorriko
zaionean
nago zain, txakur pelatu baten modura.

Aurki, nagiak ateratzeko denbora izango dut
bitartean,
tarte luze horretan, denbora iragangaitz bilakatzen
den ereti
epel eta merke horretan.

Gorrotoz eta engainoz janzten diren hitz
batzu bakarrik,
guztiz, esanahiarekin bat etortzen bait dira...
besteak, ostera,
...geundeke lasai zain, sekulan ez bait dira hitz
politak besterik
izanen...

Gogazke esperantzaren gerizara, lasai,
lasai,...

Bart arratsean hitz alper batekin besakartu naiz...

amets gaizto batekin solasean gaur gabeko loarekiko borroka bizian...

goizean etsaiaren hatzaparretik ateratzea lortu dudanean, goizak esan dit:

— gaueko ametsa ez zela ametsa, baizik, eguneroko hosto ximelen karraxia, eguneroko haizearen erdoila, eguneroko min samina.

Pake eta hitz politak aipatzen dituzten doktore eta politiko guztientzat aitzur bat daukat neure baratzan, jorra ditzaten esaten dituzten lelokeria guztiak eta bekiten sekulan ez dela pentsatuko bonbaitxo izerdiz apaindutako baten barnetik edo eta kamisa txuri baten lepotik.

Apaizari ere eskatuko nioke jaisteko pulpitotik eta gaizto eta onetaz hasteko mintzatzen aste guztia arrantzan pasa ondoren, orduan gaiztoak eta onak ez bait dira berdinak.

Makina bat ideia aldatzen zaizkigu geure urdaila zaindari dugunean. Nola eskatuko pobreak eta aberatsak izan behar dugula berdinak, urrez beterik dagoen tripadun bati?

Egunetik egunera odola samintzen doakit,
bidexidor lasai baten bila.
Egunetik egunera hitzak hutsean dantzatzen
hasi zaizkit oihartzun baten bila.
Egunetik egunera hilen zama erortzen ari zait
karraxi gorri baten bila.
Bidexidor batetan jar dezagun geure karraxien
oihartzuna
ez dadin alferrikako bideetara ixuri geure hitzen
odola,
geure karraxien oihartzuna.

Egunsentiarekin batera
hitzak jorratzen aritu naiz,
hamabietako eguzkiak ez nintzan kixkal.
Ondoren, hitzak bakantzen,
gehiegiaren artean itto ez zitezen.

Hitz batzuri bakarrik eman diet
lur fresku eta berria. Landare horiek
bilaka daitezen baratze honen zaindari
beraiek bait dira zuhaitzen erreinurako
errege.

Hitz dotore eta ederrez egindako
zestu ttipi bat erregalatu didate.
Hitz politak, xamurrak.
Hementxe ari naiz, banaka, banaka,
garbitzen, txukuntzen.

Pozoia kendu bezain laister,
gaur bertan afariaren erdian,
erdi erdian ipiniko ditut usain
gozoa ixur dezaten, usain gozoaren
lurrina mahai inguruan usain dadin.

Aspaldian natzaizue
eskean,
loretik belasoetara,
uretik itsasoetara,
hitz bilaka;
aurkitu nahian hitz errax bat.

Laket izanen zaizuen
hitz polit bat.
Edozertarako prest egonen den
esanahi xamur eta labur bat.
Bai abesteko geure mina eta
bai kantatuz estaltzeko udaberri sakona.

Ukatu didate ene eskea
eta hain txiroa da
ematen dizuedana...

Egia, egia, noski:
ateak jo ditudanean
begiratu gabe amurrazioz
hertsi didate ene bihotza.

Eguzki honen sortalde mehea sentitzen dut bizkarrean,
sentitzen ari naiz, eguzki apal honen izpi goxoa bihotz, bihotzean.
Oraindik itzal luze eta samina atzetik jarraiki dabilkit,
eta eguzkiari diot zor horrelako lagun mina.
Hala ere zinkuratzen naiz, kexati naiz... susmo trixte bat
daramat ene baitan eta.

Eguzkiaren azken kantuak xurgatzen ari garelakoan nabil,
azken dizdira emekiak dastatzen ari garela deritzat.

Larri naiz, larri. Negu hau hotz xamarra, hotzegia
agian...

Lurra egarriak zegoen eta zeruarekin berbetan ari ondoren, gaur, jaitsi zaigu euria busti bustia.

Lurreko landare guztiak parrandara urez mozkorturik joan dira. Alai, alai. Baina zoritxarrez gehiago alaitu da kaleetan zehar paseatzen dabilen ke kutsatua, errexago sartuko bait da birika lokaztuetara.

Ez naiz zerriama baten gisa
umeak erditzen ariko,
ez da sekulan nire bizikera
eredu izango.
Aurki bizikeriaz iraingo
naute.

Bizitzera etorri naiz
eta nire lehen mandamentua
botako dut; bizi, eta gero
agian keriak eskeintzen dizkidan
bizio guztietan bustiko ditut
nire gutizia guztiak.

Zikoizkeria, zekenkeria, egokeria, nikeria, gizonkeria, dirukeria...

Keria ugaritzen doan heinean gainontzeko atzizki guztiak beude itxaroten, azkenean beretzat izango bait dira gehienbat, hots: askatasunkeria, maitasunkeria, pozkeria.

Hankaz gora doa mundua eta nork gerarazi?

Asko idatzi dut,
negar galantik ere egina dut,
halere loaren sehaskan gehiago jan dut, eta
orduak deusezean marduldu zaizkidan kezka ene
barne barnean daramat.

Bizitza motza baita, egun edozer ezerezetan
orduak kizkurtzeko.

Barre ere badut galanki egin,
amodioa egiten ere trebatu naiz,
halere ametsen zelaietan gehiegi amildu ditut nire
ordu ahulak, eta bildur naiz.

Ez dut nahi, inola ere ez, hiltzean, jaio
nintzen
bezalako printz pittirra izan, zerbait gehiagoren
baitan utzi nahi ditut nire ordu luzeak...

Ez ditut nahi mundu zerri honek
opa dizkidan mixeria zapuztuak,
ez dut nahi, ezarri didaten izena,
ez eta munduko izen guztiak ere.

Ez dut hemengo deus desira.

Agur, baratz madarikatu honetako
landare kutsatuak, agur ustelaren itzal hutsa.

Nik beste nonbaiteko zerbait nahiago dut
eta kitto.

Estresaren larrupetik zerura,
lasaitasunaren eta bakardadearen eremuetara noa.

Mundu zerri honek eskaintzen didan gorotz
bortitzik
ez dut maite. Ez eskerrik asko.

Amodioa, mundu guztiarekin egitea gustatzen zait, porroa eta marihuana erretzea ere.
Norbaitek iraindu nahi baldin banau altxa dezala behatza.
Ez baitut ene bekatuak alto oso alto esateko bildurrik.

Orain altxa beza bere behatz lodia
ardaua barra barra edaten duenak,
andreari, beste batekin adarrak jartzen dizkionak,
eta igandero, astean gupidarik gabe egindako bekatuen
barkamena eskatzera elizara joaten denak.

Morala apurtzeko beldurra ala?

Edozein kantal hutsetan durunda dantzut,
kale amorratuen orruek ihes dagiote,
kea darie leihoei.
Kaleak hersten doaz, luzatzen...
irmo eta zurrunki dakusatzat gorde leku goxoak,
non arriskua totika jario bizian datzan.
Atzetik zurrunbilo garratza,
zaunkaka tiroz balak, atzetik zakurrak...

Porrak dantzan, balak non haragi biguina aurkituko zain, eta gu madarikatuok hitz ederrak bilatzen engainuaren soroetan.

Geure lotsa mazkatzen, kontzientziak baretzen,
heste zabalak betetzen.

Geure itturri kuttunetatik errepresioa besterik
ixurtzen ez denean gu hondartza handietara larrua bustitzera,
kontzientzia asetzearren.

Azkenean, geure lurrak emandako fruituen odola aztertzen:
iraultzailea zenentz, lurraren
janari bilakatu direnean geure askatasunagatik.

Gutxi
falta zaigu zerriamak bihurtzeko, halere egia aurrean,
beti aurrean, mesedez ez gaitezen gehiago engaina.

Neurtuak ditugu eguneroko eginkizunak neurtuak ditugu eguneroko minutu bakoitzaren pentsamenduak.

Oraintxe hor goian ari zatzaizkit nire bart arratseko amets erotikoaren zabaleroa neurtzen.

Ez dut nahi, ez dut bizitza honen erroiloetaz solas gehiagorik nahi. Bizitzaren abiadak larrutsik harrapatu nau eta beldur naiz.

Ezerezean galdu ditugu geure bizitzaren giltzak edozein ateetan jo dezakegu atalai erdoildu baten aho beltza.

Hilobietara abia gaitezke geure mixeria magalean
hartuta, hango ateak hertsi baino lehen. Ezer huts honetatik deus zabalagora jarriz geure zango nagitsuen
simetria galduak.

Esperantzak eta ilusioak apurtzen espezialistak
direnei gal diezaiekegu non dagoen holako errezeta mirakulutsua.

Goazen mendi izartsuetara, utz dezagun betirako ustel usaina.

Zer gehiago?
...Gosaltzeko gezurra
...Bazkaltzeko heriotzen doinua, sekuestroen
sinfonia,
torturaren erritmoa, gartzelen oihua.
...afaltzeko, gezurra, gezur hutsa putzzza.

Hil dira
hil dituzte
Erahil dituzte.
Dagoeneko ainitz dira, gehiegi.
Ene ahalmena urria da, etengabeko
sailaren zenbaki latza jartzeko.

Malko leun larriegi irristatzen doa
odolaren prozesio berberean.
Malko eta odol gehiegi, hautsitako hats samindu
artean, bihotzak, betirako gaixotasunean ez erortzeko.
Inoiz bukatzeko asmorik ez duen
gau gaitz honetan.

Bart arratsean ametsetan
lurrak oparitako zulo batera
metraileta batez mila bider
disparatu dut.
Azkenean zulo berberetik
herioaren orro luze batek
esnatu nau dardarka.
Ez dut lo gehiagorik egin
Atzo Pablo Gude balaz jantzi zuten.
Bere heriotza zela uste dut, oraindik
sentitzen dut...

Hamarretako emakume zantar eta lizun batentzat,
eskaparatean behatzen espezialista denari,
begiradak arbuiatzen dituzten itxura trakets
eta oker horientzat...

Berrogei urtez lanaren eta sukaldeko hondaminen
zerritxo bakarrari
pena txiki hau idatzi nahi nuke.

Urte, eta urte, suaren giltzapean,
gizonaren galtzapean eta beti zikintzerako prest dauden
lau pareten artean irauteagatik,
burrukatzeagatik eta soka bat edozein lekutik
zintzilik ez jartze eta urkatzeagatik...

Nahi nieke idatzi pena txiki hau.

Arestian haritzak genituen arnasaren iturri,
orain Iberduerori darion kearen pozoina
dugu geure bizitzen neurri.
Berdin zaio, bost axola...
Bertze desgizon bat daramagu geure otarre berri hauetan.

Lehen saskia hausten zenean garia ixurtzen zen,
orain marikonera deusezten denean, gauza anitz doa lurrera:
zitalkeria, gorrotoa, egoa, milaka hitz bortitz.

Desegingo duk hire etxea eta non biziko haiz?,
ez du axola, orain be bizi, bizi inon ez.

Desegingo duk hire ohea eta non egingo duk amets?

berdin zaio, betidanik nabil ametsetan,
bestela nola
arraio bizi?

Ugaritzen ari zaizkigu min berriak:
Lo egin eza,
lanik ez egiteak uzten duen kezka,
ibiltzeko eta ilusioekiko laneza,
eta mila koloretako pereza.
Tristura daramat, eta damua...
Agian, aintzina batetan gustora biziko
nintzatekeelakoan...
beharbada.

Nekez galgatuko dira
txakurraren zaunka eta katuaren mauka,
halere ezaba daiteke bien arteko amorru
laztana... Gauzak ez bait dira aldakaitzak
are gutxiago iragangaitzak...

Etxeak kuadratu zirenean...
kotxeak abiadura garratzaz egiatan
hasi zirenean...
telefonoa, irratia eta milaka komodidade
egiteari ekin ziotenean...
Orduantxe eta geroztik, juxtu, juxtu,
hasi zen azken sentimenduen entierro
baketsua, ibilaldi gardenen agurra, zaldien
trote beltzaren heno luzea.
Geroztik, presaren hankapean, presez:
Iberia, Aviaco, Ter, sirenak, kolak, zenbakiak.
Geroztik, Stresaren kolkoan, edozer
bitxitarako astirik gabe, bizitzerako doi doi
eta halere bizi ez. Numeroen errota honetan,
minutuen
fabrika honetan... bizi, nola demontre bizi?

Erlojuen orratzek bihotza zorrozten
didate
erlojuen abiadak une eta txolarte eztitsuak
bortxatzen dizkidate
erlojuen prisak stresaren ereti zapuztuetara
bultzatzen naute.

Erloilu guztiak hurkatuko nituzke,
orratz guztiak ezabatuko nituzke eta gero,
desegunean, desgaraian, destenorean
biziko nintzateke
Minuturik gabe, ordurik gabe, sirenarik
gabe...
eguzkia eta bihotza ditudala ile zurien
pareko testigu.

Pentsatu korrika, korrika
sentittu,
mundu honen heriotzaren bila
goaz egunetik egunera
askoz ere prestuagoki. Stresaren

geltokian itxaroten
gaitu eroango gaituen gaitzesten dudan trenak.

Artzai, artzai da nere txakurraren izena
Ene lagun bakarraren izena.

Egunsentia iristen denean
mundu honetan gertatzen denari uko eginaz
bere poza begi tamaletan dizdiratzen dit.

Gau samina ailega bezain laister oherako
bidea garbitzen dit, egunean zehar gertatutakoari
armiarma sareak kenduaz.

Gaur gauean goiko zeruan
izarno bat bistatu dut nagiak ateratzen,
berarekin lo egin nahi dudala oju egin diot.
Larrubizik jartzerakoan gaua itzali du, eta
nik beltzaren usain luzean nire nahia gorde bitartean.
Bertze izartxoren bategaz oheratuko zen, oraindaino
etzanda, noiz agertuko zain nago, nago zain...
Zaintzearen zaindari lurraren zaina
bihurtu artean, nago zain.

Zure begi xamurretan
apurtu zait ideia baten lilura
kristal baten antzera erori zait,
ilusio izpia...

Ez, ez, ez, zorrotza,
ezpataren muto zorrotza.

Nik baiaren baitan gorderik neukan
nire esperantzaren habia.
Zapuztu zait amodioa,
zapuztu zait bizitzaren arnasa...

Erortzen ari zaizkit, izarrak,
egunsentiaren dizdirak...

Ezetz bat izan da, ene etsai galanta.
Ez, ez dut sekulan esanen ezetz, aurki, bai eme
eta apal bat.

Amodioaren bila merkatu txikira abiatu naiz...

Gorakada handia, gorakada ikaragarria jasan du amodioaren salmentak: azkenik berriro ere ene otarre hutsaren itzalpean iritsi naiz geure etxearen giltza xamurtzera.

Bihotza krisian dago, amodioa turismoa egitera joan zaigu, joan zaigu, zaigu joan.

Garesti dago, garestia da maite zaitut esatea, eta debekaturik aurkitzen da maite zaituztet gurguratzea. Egungo kodigoetan deuseztu da hitz hauen esanahia. Deusez, ezerrez, baterez horixe dugu geure bihotz urratuen eduki hutsala.

Hitz bat bakarra dut maite
berarekin amodioa egin nahi ere
bera zait oro laket, goizez desia dut
eta gauez berarekin ametsetan nabil...
zuk ere aurki dezakezu,
abia zaitez gezurrak erantzita, eta berehala
askatasunaren
usain pittina iritsiko zaizu zeure baratz goxoetara.

Galdutako antzara baten antzera zebilen dantzetan
hitz itsu bat,
dantza trixte batetan murgilduz
galduriko esanahia.
Azkenik nekez jantzi
zuenean izerdi beroa, agortzen joan zen.
Agortzen, lehortzen, ximeltzen,
errauts bihurtzen. Lehen engainatzeko balio zuen
hitz kamutsa.
Nork sinetsi orain? Nork sinetsi? Nork?
Esanahia kamustu diotenean, eguneroko erabilian, eguneroko
engainoetan.
Nork sinistu hainbat bider ikutu den hitza, zulo
triste batera amildu dela?

Askatasuna, lehen nonahi jaiotzen zen, bihotz bihotzean landare kuttuna eta estimatua bait zuten.

Askatasuna, orain, hitzez lardazka daiteke amets zoroez edo alkoholaren bidez edo eta metrailaren orro biziez.

Hori bai! Orain bederen ez da edozein lekutan muskiltzen den landare.

Klimaren aldaketak gaizki egin dio eta gu enteratu gabe...

Ez, ez, ez,
ez naizelako gehiago
hitz zaurituen
esanahia harriei
ulertarazten saiatuko.

Ez, ez, ez,
ez naizelako gehiago
burdinezko eskulturen simetriak
zertan diren
loreei
ikusterazten saiatuko.

Gezurra, baita dena,
bizitza ere
ez baita ispilu faltso
bat besterik...
hutsez betea, zuloz josia.

Ez, ez, ez,
ez naizelako gehiago

gauen lilura beltz eta izar motak
kontatuz hunkituko.

... Ez naizelako gehiago engainatuko

Sorginak izanen balira
oraintxe hartuko nuke eskobatxo bat
metraileta gisa eta Ajuria Enea guztietara
hegaz joanen nintzateke...

Plis, plas kaskahezurrean ederto jo ere.
...Eta, batzu besterik ez direnei esanen nieke ene erratz
gainetik, bertze planetetara joateko gezur gosez daudenak
mazkatzera. Hemen dagoeneko asetuta lehertzeko zorian gaudela
eta...

Hitzaren teknika bost urtez errax ikasten da, eta hain
zail gertatzen gero, esatea, dena gezurraren zapietatik
datorren lamada bat besterik ez dela.

Hori, egun sinisteraztea...

Gezurra; hitz politez jantzita dagoen drogarik arriskutsuena bait da.

Egia muskildu bezain laister
datoz ahuntzak eta akerrak basoak larrintzera
egiak larrutzera.

Egia bat geure basoetan belar loretsu eta leun
bihurtzen denean, ahuntz eta aker guztiak hilak
direlako izanen da.

Aker eta ahuntz guztiak hilko direnentz,
hor dago koxka!

Sinets egin behar eta gero gerokoak, bitartean
barrabas belarra...

Engainatzeko erak ikastea ez da zaila,
engainatzea errezago, eta,
engainua bizitzea, hori!
eguneroko janari.

Gezurra, nerea, pakea, amodioa...
amodioa, pakea, nerea, gezurra...
nerea, pakea, gezurra, amodioa...

Gezur merke baten truke
San Juan sua.
Pake ximel eta ezinaren truke
San Juan sua.
Amodio huts guztien truke
San Juan sua.
Nerea, nere, nire, nirea, eta ego-zein,
nizeinen truke
San Juan sua.

Erre ditzala kantzer honen sustrai guztiak
eta gaitz guztietatik salba gaitzala.
San Juan, San Juan... suak.

Goizaren lurrin goxoa losintzea,
gauaren zumo beltza dastatzea,
eguerdiko eguzkiaren printz xamurrak sentitzea,
hor dituzu hiru esaldi, hortxe dittut hiru opari.
Hiru horiexek edanaz, bizi naiz. Horiexek ditut
egun guztiko lagunurko bizi, eta matte ditut.

Ez ditut orduak:
makina baten aurrean deuseztuko,
etxeak ikuzten apurtuko,
klaseak ematen xahutuko,
lanean ari naizela galduko.

Orduak, bizitza... bizi egin nahi ditut
lurrari botatzen dizkiodan aleak nola hizketan
muskiltzen ari diren ikusiz. Lurrarekin
hitzeginaz pozez, busti...

Mundu zabor honetan oso gauza gutxi zaizkit laket:
egunsentia, ilunabarraren usain gozoa eta gaua gau luze eta freskua.

Mokordoak musukatzera datozen
euli ezpatadunen modura
nabil ilusio izpi baten aztarnaren bila,
biharko egunari zentzu berri bat emateko.

Eguna lardarkatu dut,
goiza arratsaldearekin nahastuz
eta ezin dut ene bihotza zuzendu,
orratzak lausotu baitzaizkio.

Ilusioak esperantza direnean:

Maratil zorrotz bat jartzera noa
gezurrezko ilusio guztiei
gerorako desilusiorik gera ez dadin.

Bota iezaizkiezue atalaiak eta guztiei
mozkito mozkortuak bere mizto zorrotzarekin ez
daitezen geure lurretan sar.

Nahiz ateak hertsi ekaitza
atarian egonen zelatan geure lo goxoari so,
noiz zirrikitu bat aurkituko, pozoina
berehala jaurtitzeko.

Sentimenduak agortzera doan autopista
eta ilusioak sargoritzen dituen iturria
gurutzatzen diren unean
deus geratuko ote?

Mihina moteltzen ari zait...
hitza erdoiltzen...
Alferkeria hutsa delakoan nabil.
Hori baldin balitz, berehala sendatuko
nintzateke... Baina uste dut, gaitz bat
dela eta arrontean dena kixkaltzen,
larrintzen, larrutzen,

gorritzen, soiltzen,
ari dela, muskil hezeenak ere...

Ilusioak eta esperantzak antzuturik dauden
basamortu honetan;
zer desia dezakegu?
Heroina, ilusioen bide bakarra bilakatzen den
zabortegi honetan;
zer esan genezake?
Zerua kez lausotzen ari den bitartio eta lurra
langabeziaren txitxitari bihurtzen
ari den neurrian;
zer eska leike?

Hobe, zaztada eder batzuz, hilobia
ehotzea, ilusiorik gabeko zatar beltz hunetan
desesperazioaren poderioan, kupel antzu baten
antzera
haize hutsala puzkartzea baino.

Goraize beltzak otoi, zuk, eta nik ez;
Oinaze mingotsak emaro zuri ematen zizun zasta, orratz mirakulutsua zeure odol xikuan gorantzen zihoan zizto bizian eta zu kuluxkan goxo.

Ametsetan, izarren ispiluetatik ilusio ainitz edanaz oparo.

Goraize beltzak amen, zuk eta nik eztiki baietz nola ba ez?

Ez zait perfekzioa gustatzen,
dena gaizki egiten duten horietako
bat naiz.

Ez dakit ondoa eta gaizkia
sailkatzen dituen muga non
aurkitzen den.

Perfekzioa saldu egiten da gehienetan,
eta ez naiz sekulan horren erosle izanen.

Perfekzioa konpetentzietan jartzen da
gainantzekoek mires dezaten eta ez naiz
horren miresle inoiz izanen.

Ez dut inolako perfekziorik nahi, are gutxiago,
bizitza guztian bere otsein izan, nahiago dut
atxarraztaloa
erabiltzen erdipurdikoa izan, korrika azkena iritsi
eta
euskal letretan erdiko txar horietako izan, baina

hori bai, mila iturrietara ene burua makurtu nahi nuke
denetarik dastatzeko.

Tripak makurtu ditut lurreraino
eta indarka lurrari eman diot berea.

Azkenean gozaren pozez lurrarekin besarkatu denean, besarkada kirastunaren hats epela nireganatu da.

Patxada ederrean kremailera hertsiz
joan naiz intxaurrondora gorotza mirestera.

Osin gordinak losindu eta
bihotza minbera sentitu dut, hala ere,
hortxe duzu aspaldiko kantu zaharra:
Senda menda osinak erre nau...

Eguna aharrausika hasten den unean ferekatzen ditudan ilusio ziprista guztiak, gauaren lokatzarekin ozpintzen zaizkit.

Nere despoesia kaxkarra, labaina bihurtu
nahi nuke,
hitzak zorroztuz, esanahiak mikaztuz
nahi nituzke:
sapelutsen abiada kamusteko
gezurren kabiak zapuzteko
eta behin eta behingoz hitzen soineko
faltsuekin
akabatzeko.

Orraze bat emaidazue ideia batzu
orrazteko
eta apaindurik dauden molde batzu
urratzeko.
Nork esan bi eta bi lau direla, nork ez
sinistu?

Dena egina dugun etxe honetan
hobe
geure arnasa erleei gurguratzea.

Ez dut nahi poesia ederra idaztea
ez dut nahi hitz politak bilatzea
ez dut nahi errimen eta gainontzeko apaindurien ispilua. Mamiaren kemena hutsik, soilik...

Gezurraren enbrujua, gezurraren kantzerra, gezurraren solasa
amildu nahi ditut, sapelutsen abiadura gerazi nahi dut.
Munduaren gaixotasuna sendatu nahi dut.
Kutsaduraren urratsak apurtu nahi ditut eta hain txikiak, hain exkaxak geratzen zaizkit poesiaren gubiak,
hitzen oihartzunak... Hain txikia sentitzen naiz, bai txikiegi, txikiegia...

Ene poesian usain goxoa
dastatu nahi duenak bertze
udazkenetara joan dadila...

Ustel usaina daramat nire baitan,
gizarte hutsaren ispilu bait naiz,
eta ez naiz isilduko usain lerden hori leku gozo eta
beroetaraino hedatu bitarten.